

KULTURAREN EUSKAL PLANA 2007-2008

KULTURGUNEAK SENDOTZEN



KULTURAREN EUSKAL PLANA 07-08: KULTURGUNEAK SENDOTZEN

2004AN ERAKUNDEARTEKO BATZORDEAREN (EAE-KO ERAKUNDEEN KOORDINAZIORAKO BATZORDEA) INDARRAREKIN PLANA GARATU ONDOREN, KULTURAREN PLANAREN FASE BERRI BATEAN MURGILTZEN GARA.

BATZORDE HONEK EZARRI DITUEN OINARRI ETA EGITUREK, HURRENGO URTEETAN EUSKAL KULTURAREN SISTEMA EGOERA ONURAGARRI BATEAN KOKATZEN LAGUNDUKO DUTE, GAUR EGUNGO KULTURAREN ERRONKEI BERMA OSOZ AURRE EGIN AHAL IZATEKO.

HEMEN BUKATZEN DA DA ORAIN ARTEKO BATZORDEAREN LANA, KULTURAREN EUSKAL PLANA HASERATIK TRINKO BULTZATU DUENA. BATZORDE BERRI BAT DAGO SARTZEAR. EUSKARRI BERRI ETA INDARTUA, IRTETZERA DOAN BATZORDEARI TXANDA HARTUKO DIONA GURE HELBURUAK INDARBERRIZ BETETZEN JARRAI DITZAGUN.

BATZORDE BERRIAREN ERAKETAK ERAKUNDEARTEKO ELKARLAN DINAMIKA INDARTU ETA PROIEKTU GARRANTZITSUENAK GAUZATZEKO BALIO BEHAR DU.



1.- PLANAREN GARAPEN MAILA


Kulturaren Euskal Plana

Plan Vasco de la Cultura

KEP-AREN (KULTURAREN EUSKAL PLANA) GARAPEN MAILA: %58

- Apirilaren 25ean **KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUAREN** kideek Kulturaren Euskal Planaren 2006ko **balantzea onetsi** zuten
- KEP-aren burutze maila (2006an) **% 58,42 da**, eta gainontzeko % 41,58a 2007-2008rako planifikatua dago.
- Aurkeztu zen aurreko balantzean, 2006ko azaroan, behin-behineko burutze maila % 62,12koa zen. %4ko alde hori Kontseiluan aztertutako jardueren garapen mailaren egokitzeak dakar, batetik, eta amaiturik dauden jarduera batzuk azaltzen duten jarraitasun beharrak, bestetik.

GARAPENA ARDATZEN ARABERA



Kulturaren Euskal Plana


Plan Vasco de la Cultura



2.- 2004-2006: EGINDAKO PROIEKTUAK

LAN EREMUAK

Kulturaren Euskal Planean hiru lan eremu desberdinetatik lan egin da:



JADANIK ERREALITATE DIREN PROIEKTUAK, BESTEAK BESTE:

EGITUREN ERAKETA (1)

- Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean sortu da Arte Eszenikoen Masterra, 2007-2008 kurtsoan martxan jarriko dena
- Kulturaren Euskal Behatokia sortu da, kulturari buruzko informazio eta datuak eratzeko tresna modura; hiritar guztien esku dagoen zerbitzua, erakunde eta sektoreen elkarlanean eta koordinazioan oinarritutakoa. Orain arte sektoreetan egin diren ikerketa lanak era sistematikoan ari dira eskuragarri jartzen.
- Museoen legea egin da eta Legebiltzarrak onetsi du. Liburutegien lege egin eta Jaurlaritzan onetsi da.
- SAREA Antzerki-sarean erakundearteko partaidetza indartu eta osatu da.

EGITURENA ERAKETA (2)

- TDT lokalei buruzko dekretua egin da, sektorearen erregulaziorako tresna gisa.
- Kultura arloko web orrien eguneratze eta hobetze lerroari hasiera eman zaio, zerbitzu publiko gisa.
- Etxepare Euskal Institutua, Euskal Kulturaren nazioarteratzeko gunearen proposamena egin eta onartu du Jaurkitaritzak.
- Liburutegien 07-08 eperako Ekintza Plana osatu da, sektore eta erakundeen arteko elkarlanean.

KOORDINAZIOA

- Kulturaren Euskal Kontseilua eraberritu da.
- BI urte hauetan Erakundearteko Batzordeak lan erritmoa mantendu du.

Kontseilua sendotu egin da bere aholkularitza eta jarraipen lanetarako, eta Erakundearteko Batzordeak bere lan exekutiboak finkatu egin ditu. Honek erakundearteko koordinazioa indartu du, batetik, eta sektoreetako guneak sendotzeko bidea eman du, bestetik.

SEKTOREEN INDARTZEA

- Ikus-entzunezko sorkuntzaren ekoizpenean finantziario lerro berria ezarri da da, ikus-entzunezko sektorea bultzatuko duen lerro estrategiko gisa.
- Itzulpen eta kokapen teknologiak indartu dira, euskara oinarritzat hartuta eta PESI-rekin koordinatutako proiektuekin. Euskarazko software askea garatu da.
- Kultura Sailaren aurrekontua handitu da, egitarauak eguneratu eta indartzeko.

Kulturaren Euskal Plana

Plan Vasco de la Cultura



3.- 2007-2008: BI URTEOTARAKO PROIEKTU TRAKTOREAK

PROIEKTU TRAKTOREAK:

2007-2008rako PROIEKTU TRAKTOREAK 2005-2006 urteetan egindako lanetan oinarritzen dira.

Planaren hasieratik lantzen eta garatzen joan diren proiektuak dira, baina planifikazio eta jarraipen eraginetarako biurtekoetan zatitu dira.

Proiektu hauek jarraikortasun lerro argiak dituzte Planaren lehen 4 urteotarako. 2007-2008rako bi urteotan, proiektu jakin batzuek duten izaera eta eragina kontuan hartuta, proiektu traktore moduan hartuko ditugu, eskatuko duten ahalegin eta baliabideak handiagoak direlako. Proiektu traktore hauetatik nabarmenenak datoz hurrengo orrialdeetan.

ERREALITATE IZANGO DIRA, BESTEAK BESTE (1):

- **ARTE ETA KULTUR INDUSTRIEN INSTITUTUA:** Arte eta Kultur Industrien proposamena egin eta Jaurlaritzan onestea.
- **ARTE ESZENIKOEN IRAKASKUNTZARAKO ZENTROA:** Arte eszenikoen ikaskuntzarako eskola bat egiteko proposamena osatzeko lanetan Hezkuntza Sailarekin elkarlanean aritzea, ondoren Hezkuntza sailak onartzeko.
- **BEHATOKIA:** 2007-2008-rako egitarauari jarraituz Behatokiaren lana garatu. Kulturarako marko estatistikoa egin eta martxan jarri.
- **ZERGA-ARINKETEN ARAUBIDEA:** Kultur inbertsioetan zerga-arinketek duten eragina aztertu eta ondoren proposamenak egitea.

ERREALITATE IZANGO DIRA, BESTEAK BESTE (2):

- **ARAUDIA:** Museoen legea martxan jarri. Liburutegien legea Legebiltzarrean onetsi eta martxan jarri. Euskadiko Agiritegien legea egin eta Gobernu mailan onestea.
- **HITZARMENAK:** Elkarte estrategikoen egiturak indartu eta kudeapena hobetzeko bide berriak ezarri, profesionalizazioan ere aurrera egiteko: hitzarmenak sinatu.
- **EITB-REN KONTRATU PROGRAMA :** EITB-rekin bigarren kontratu programa sinatzea.
- **BIKOIZKETA ETA FILMEN ERAKUSKETA EUSKARAZ:** DVD formatuan pelikulen bikoizketak gehitu eta euskarazko filmen erakusketa indartu.

ERREALITATE IZANGO DIRA, BESTEAK BESTE (3):


- **ZINERAKO DEIALDI BERRIAK:** edukiak oinarri berrietan; luzemetraiak eta dokumentalak sustatu eta hedatzeko laguntzak.
- **FM-ak:** FM-entzako araudia egin.
- **DIGITALIZAZIOA:** Digitalizazio zentro koordinatzaile baten proposamena egin eta garatu.

Kulturaren Euskal Plana

Plan Vasco de la Cultura

2007-2008 EPERAKO JARDUEREN GARAPENAREN AURREIKUSPENA:

Kulturaren Euskal Planak hurrengo biurtekoan edukiko duen garapena hauxe izango da:



	1 ARD	2 ARD	3 ARD	4 ARD	5 ARD	6 ARD	7 ARD	8 ARD	9 ARD	10 ARD	GUZTIRA
ORAINGO GARAPENA	% 65.28	% 96.6	% 28.12	% 39	% 65.2	% 50.9	% 78.57	% 46.43	% 51.67	% 62.5	% 58.42
2007 GARAPENA	% 84.7	% 100	% 50	% 50.8	% 86.25	% 83.3	% 85.7	% 81.7	% 78.8	% 75	% 77.61
2008 GARAPENA	% 100	% 100	% 81.25	% 86.5	% 100	% 98.6	% 98.8	% 98.32	% 93.05	% 100	% 95.65



4.- METODOLOGIA ETA LANTALDEAK

METODOLOGIA



• Lantalde sektorialen dinamika Planaren akzioen garapenerako oinarrizko zutabeetako bat da.

LANEAN ARI DIREN TALDEAK

Lantaldeen dinamikan hasi diren taldeak. Batzuk haserako faseetan daude, erakunde-arteko bilerekin, eta beste batzuk aldiz, liburutegien kasuan bezala, jada amaitu dute 2007-2008rako Plan Operatiboa.

- ANTZERKIA
- DANTZA
- IKUSIZKO ARTEAK
- ESKULANGINTZA
- ARGITALPENGINTZA
- LIBURUTEGIAK
- AGIRITEGIAK
- MUSEOAK
- MUSIKA

2007an LANEAN HASTEKO DIREN TALDEAK

Oraindik martxan jarri ez diren taldeak eta 2007an hasiko direnak.

- IKUSENTZUNEZKOA
- LITERATURA
- ONDAREA

2007an ERATU ETA LANEAN HASIKO DIREN TALDE BERRIAK

2007an eratu eta martxan jarriko diren talde berriak


- GARAPEN TERRITORIALA
- KOMUNIKABIDEAK

Kulturaren Euskal Plana

Plan Vasco de la Cultura

Martxan jarri diren lantaldeak:

- ANTZERKIA
- DANTZA
- IKUSIZKO ARTEAK
- ESKULANGINTZA
- ARGITALPENGINTZA
- LIBURUTEGIAK
- AGIRITEGIAK
- MUSEOAK
- MUSIKA



2007an martxan jarriko diren lantaldeak:

- IKUS-ENTZUNEZKOA
- LITERATURA
- ONDAREA

2007an martxan jarriko diren lantalde berriak:

- LURRALDE-GARAPENA
- KOMUNIKABIDEAK